

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

518/2021 Foru Agindua, irailaren 18koa, zeinaren bidez onesten baita kooperatiben sustapen eta heziketa funtsaren erabilerari 2021ean aplikagarri zaion interpretazioa, COVID-19aren ondorioak arintzeko.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 11. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenez, Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, zerga arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatu edo argitzeko xedapenak emateko ahalmena Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari dagokio soil-soilik.

Xedapen horren babesean, irailaren 29ko 380/2020 Foru Aginduaren bidez Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ebatzi zuen ezen, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan kooperatiben heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ezartzen den kontribuzioaren zenbatekoak apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-Dekretuaren 13. artikuluan adierazitako helburuetara bideratzen zituzten kooperatibek ez zutela galduko, arrazoi horregatik, fiskalki babestutako kooperatiben izaera. Gainera, kasu horietan ere ez zen ulertzen horrela aplikatutako zenbatekoak diru sarrerak direnik kooperatibentzat.

Maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege-Dekretuak, zeinaren bidez presako neurriak hartzen baitira osasun, gizarte eta jurisdikzio arloan, alarma egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatzeko (alarma egoera hori urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaratu zuen, SARS-CoV-2ak eragindako kutsatzeen hedapena geldiarazteko), 12. artikuluan 2021eko abenduaren 31ra arte malgutzen du kooperatiben heziketa eta sustapen funtsari eman dakioken erabilera, COVID-19aren ondorioak aritze aldera.

Irailaren 29ko 380/2020 Foru Agindua onestea eragin zuten arrazoiak xedapen hau justifikatzen duten berberak dira. Ondorio horietarako, 2021eko irailaren 8an egindako txostenean Eusko Jaurlaritzako Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak ondorioztatu du Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen mende dauden kooperatibei arazorik gabe aplikatu dakiekeela lehen aipatutako 8/2021 Errege Lege-Dekretuaren 12. artikulua, 1. eta 2. zenbakietan araututa dauden terminoetan.

Horrek esan nahi du ezen «kooperatiben heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioaren» zenbatekoak helburu hauetara bideratu ahal izango direla, osorik edo zati batean:

a) Finantza baliabide gisa, kooperatibari likidezia emateko, bere funtzionamendurako beharrezkoa izanez gero.

Ondorio horietarako, kooperatibak funtsa itzuli beharko du, gutxienez urte bakoitzean sortzen diren erabilera libreko emaitzen % 30arekin, haren aplikazio ez-ohikoa erabakitzeko unean Funtsak zeukan zenbatekora iritsi arte, eta gehienez ere, hamar urteko epean.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 518/2021 de 18 de septiembre por la que se aprueba la interpretación aplicable durante 2021 al uso del fondo de promoción y educación de las cooperativas con la finalidad de paliar los efectos del COVID-19.

El apartado 3 del artículo 11 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que en el ámbito de las competencias de la Diputación Foral, la facultad de dictar disposiciones interpretativas o aclaratorias de las normas forales y demás disposiciones en materia tributaria corresponde de forma exclusiva a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

En virtud de dicha disposición, por Orden Foral 380/2020, de 29 de septiembre, el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas resolvió que las cooperativas que destinaran durante 2020 las cantidades de la contribución para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público del artículo 72 de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, a las finalidades indicadas en el artículo 13 del Real Decreto-ley 15/2020, de 21 de abril, no perdían la condición de cooperativas fiscalmente protegidas por este motivo. Además, en estos casos, tampoco se entendía que las cantidades así aplicadas tienen la consideración de ingreso para las cooperativas.

El artículo 12 del Real Decreto-ley 8/2021, de 4 de mayo, por el que se adoptan medidas urgentes en el orden sanitario, social y jurisdiccional, a aplicar tras la finalización de la vigencia del estado de alarma (declarado por el Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, por el que se declara el estado de alarma para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2), flexibiliza temporalmente, hasta el 31 de diciembre de 2021, el uso del Fondo de educación y promoción de las cooperativas con la finalidad de paliar los efectos del COVID-19.

Los motivos que impulsaron la aprobación de la citada Orden Foral 380/2020, de 29 de septiembre, son los mismos que justifican la presente disposición. A estos efectos, la Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco ha emitido un informe, con fecha 8 de septiembre de 2021, concluyendo que es aplicable a las cooperativas sujetas a la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de cooperativas de Euskadi, el artículo 12 del anteriormente referido Real Decreto-ley 8/2021, en los términos regulados por él en los números 1 y 2.

Ello supone que las cantidades de «la contribución para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público» podrán ser destinadas, total o parcialmente, a las siguientes finalidades:

a) Como recurso financiero, para dotar de liquidez a la cooperativa en caso de necesitarlo para su funcionamiento.

A estos efectos, el Fondo deberá ser restituído por la cooperativa con, al menos, el 30 por ciento de los resultados de libre disposición que se generen cada año, hasta que alcance el importe que dicho Fondo tenía en el momento de adopción de la decisión de su aplicación excepcional y en un plazo máximo de diez años.

b) COVID-19aren osasun krisia edo haren ondorioak arintzen lagundu dezakeen edozein jarduera egiteko, dela ekintza propioen bidez, dela beste entitate publiko edo pribatuei dohaintzak eginez.

2021eko abenduaren 31ra arte, eta, salbuespen gisa, Zuzendaritza Kontseiluak bere gain hartu ahal izango du heziketa eta sustapen funtsaren aplikazioa onesteko eskumena, 1. apartatuan aurreikusitako terminoetan, baldin eta, baliabide egokirik edo nahikorik ez izateagatik, sozietate kooperatiboen Batzar Nagusia biltzeko deialdia ezin bada bitarteko birtualen bidez egin.

Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauaren 12.3 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, non esaten baita ezen Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 68. bis artikuluan (abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan gaur) kooperatiben heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ezarrita dagoen kontribuzioaren zenbatekoak artikuluko horretan aurreikusten ez diren helburuetarako erabiltzeak fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzea dakarrela, eta, orobat, arau horren 17.4 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, bertan ezartzen baita kontribuzio hori onartuta ez dauden helburuetarako erabiltzeak fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galtzea ekartzeaz gainera, bidegabeki aplikatutako zenbatekoa diru sarreratzat hartzea ere ekarriko duela berekin (artikulu horretan baldintzak ezartzen dira kooperatiben heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste xede batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioa gastu kengarritzat hartzeko), zilegi da foru agindu interpretatibo bat ematea, haren bitartez argitzeko 8/2021 Errege Lege-Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako erabilerak, artikuluko horren 1. eta 2. zerbakiaren araututako terminoetan, ez duela berekin ekarriko fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzea.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengo. Kooperatibek maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege-Dekretuaren 12. artikuluan adierazitako helburuetara bideratzen badituzte Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan kooperatiben heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ezarritako kontribuzioaren diru kopuruak (errege lege-dekretu horren bitartez presako neurriak hartzen dira arlo sanitario, sozial eta jurisdikzionaletan), kooperatibek ez dute galduko, arrazoi horrengatik, fiskalki babestutako kooperatiben izaera. Gainera, kasu horietan ere ez da ulertuko horrela aplikatutako zenbatekoak diru sarrerak direnik kooperatibentzat.

Bigarren. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 11. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoan oinarrituta, foru agindu honek ondorio lotesleak izango ditu Zerga Administrazioako organo guztientzat «Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN» argitaratzen den egunetik aurrera.

Donostia, 2021eko irailaren 18a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(6114)

b) A cualquier actividad que redunde en ayudar a frenar la crisis sanitaria del COVID-19 o a paliar sus efectos, bien mediante acciones propias o bien mediante donaciones a otras entidades, públicas o privadas.

Hasta el 31 de diciembre de 2021, el Consejo Rector podrá asumir excepcionalmente la competencia para aprobar la aplicación del Fondo de educación y promoción en los términos previstos en el apartado 1, cuando por falta de medios adecuados o suficientes la Asamblea General de las sociedades cooperativas no pueda ser convocada para su celebración a través de medios virtuales.

Atendiendo a lo dispuesto en el artículo 12.3 de la Norma Foral 2/1997, de 22 de mayo, sobre Régimen Fiscal de Cooperativas, que señala que la aplicación de las cantidades de la contribución para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público, establecida en el artículo 68 bis de la Ley 4/1993, de 24 de junio de Cooperativas de Euskadi, (actual artículo 72 de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre) a finalidades distintas de las indicadas en dicho precepto conlleva la pérdida de la condición de cooperativa fiscalmente protegida, y a su artículo 17.4 relativo a los requisitos para la deducción como gasto de la contribución obligatoria para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público, que establece la aplicación de la referida contribución a finalidades distintas de las aprobadas da lugar, además de a la pérdida de la condición de cooperativa fiscalmente protegida, a la consideración como ingreso del importe indebidamente aplicado, procede dictar una orden foral interpretativa aclarando que el destino establecido en el artículo 12 del Real Decreto-ley 8/2021, en los términos regulados por él en los números 1 y 2, no implicará la pérdida de la condición de cooperativas fiscalmente protegidas.

En consideración a lo anterior,

RESUELVO

Primero. Las cooperativas que destinen las cantidades de la contribución para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público del artículo 72 de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, a las finalidades indicadas en el artículo 12 del Real Decreto-ley 8/2021, de 4 de mayo, por el que se adoptan medidas urgentes en el orden sanitario, social y jurisdiccional, no perderán la condición de cooperativas fiscalmente protegidas por este motivo. Además, en estos casos, tampoco se entenderá que las cantidades así aplicadas tienen la consideración de ingreso para las cooperativas.

Segundo. Basándose en lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 11 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la presente orden foral tendrá efectos vinculantes para todos los órganos de la Administración tributaria a partir de la fecha de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Gipuzkoa.

San Sebastián, a 18 de septiembre de 2021.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(6114)